

**7/2025 TXOSTENA, OTSAILAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUAREN ETA GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUAREN AGINDU-PROIEKTUA,
ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILAREN
KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

2025eko otsailaren 11n, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren agindu-proiektuari buruzko txostena eskatu zen. Agindu horren bidez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren kontratazio-mahaiaren osaera ezartzen da.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari zuzendu zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko presidentea den aldetik.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_ORD_730/25_11), dokumentu hauek daude:

- Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren Aginduaren zirriborroa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzen duena.
- Agindu horren zirriborroaren justifikazio-memoria.
- Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaez eman beharrekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) .2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontratazio Mahai iraunkor bat



edo kontratu anitzetarako eginkizunak dituen bat sortzeko agindu-proposamen bat delako.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL), 326. artikuluan kontratazio-mahaiak arautzen ditu, kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organo gisa. Lege horren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, 326. artikulua hori ez da oinarritzeko legedia.

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak, 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lehenengoa, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak ezartzeko; bigarrena, organo horien eginkizunen norainokoa zehazteko.

Oro har, 8. artikulua xedatzen duenez, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizitadedunetan kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai hori izango da eskaintzak baloratzeko organo eskuduna. Lizitazio-iragarkirik argitaratu beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-organoak aukerakoa izango du kontratazio-mahaia eratzea. Kontratazio-organoari dagokio mahaiko kideak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, titularrak izendatuko baitu.

Artikulu berean, 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntzeko organo horiek eratzeko arauak ezartzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak honako hauek izango direla: presidentea, idazkari-lanak egingo dituen pertsona bat eta, gutxienez, hiru kide. Eta gaineratzen du bokalen artean nahitaez egon beharko dutela kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa eta aholkularitza teknikoa emateko eginkizuna esleituta duten bi kidek, hurrenez hurren, eta kontu-hartzaile batek edo kontratazio-organoaren ekonomia-eta aurrekontu-kontrolaren eginkizuna esleituta duen pertsona batek.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen



zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du kontratazio-mahaian. Kontratazio-organo eskudunak izendatuko du, zuzendaritza horren titularrak proposatuta.

Aukeran, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan, kontratazio-organoak hala eskatzen badu.

Kontratazio-mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko moduari dagokionez, aipatutako 8. artikulua 3. apartatuaren arabera, modu iraunkorrean edo espezifikoa egin daiteke, kontratu bakoitza esleitzeko. Ondoren zehazten duenez, izendapen hori iraunkorra bada, edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eta beste betekizun bat gehitzen du, honako hau ezartzen baitu: nolahi ere, kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian sartuko dira, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko eta kaudimen-edo sailkapen-baldintzak betetzeko egin behar duen bilera baino hamar egun lehenago gutxienez.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIEN OSAERA.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu ziren, eta, berregituraketa horren ondorioz, sail bakoitzari esleitutako jardun-eremuak eratu dira, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila ere barnean hartuta, aipatutako dekretuan jasotako funtzioek eta jardun-arloek osatua.

Hala, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak 18/2024 Dekretuaren 15. artikuluan zehazten ditu bere eginkizunak eta jardun-arloak, eta, horren arabera, Dekretu horren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, honako hauek osatuko dute: desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Politiketako Sailburuordetzako organo eta unitateek, eta Lehendakaritzako aurreko egiturako Gazteria Zuzendaritzak. Era berean, Zerbitzu Zuzendaritza sortzen da.



Bestalde, urriaren 29ko 320/2024 Dekretuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri du. Hori dela eta, sail horretako kontratazio-organoei laguntzeko organoak berriro egituratu behar dira, bere eskumeneko gaietan.

Arestian azaldutakoarekin bat etorritz, Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu egin dira, ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren eta urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren bidez. Berregituraketa horren ondorioz, beste xedapen bat behar da, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren kontratazio-organoari lagunduko dion kontratazio-mahaien osaera zehazteko.

Era berean, 320/2024 Dekretuaren 8.2 artikuluan ezartzen denez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio kontratazio-espeditenteak eta baliabide propioei eta zerbitzu teknikoiei egindako enkarguak izapidetzea, bai eta sailaren kontratazio-organo gisa jardutea ere, baldin eta kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, 1.000.000 eurotik gorakoa ez bada. Era berean, eta baldintza berberetan, eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duen eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera prestazio jakin bat egitea xede duten negozio juridikoak sinatzeko.

V.- AGINDU-PROIEKTUAREN EDUKIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostenaren xede den agindu-proiektuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren Kontratazio Mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi du.

Azalpen-zatia, artikulua bakarra eta azken xedapena ditu agindu-proiektuak. Proiektu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan eskatzen diren kontratazio-mahai iraunkorretako edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleituta dituzten kontratazio-mahaietako kideak izendatzeko arau-maila eta organo eskudunak errespetatzen ditu.



Proiektu horren artikuluko bakarraren lehenengo apartatuan ezartzen denez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publikitadedunetan. Mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu.

Era berean, 2. apartatuko a) letran, Saileko Administrazio eta Zerbitzuen arduradunari esleitzen zaio Kontratazio Mahaiaren Lehendakaritza. Ondoren, gaineratu du ezen, postu hori hutsik badago, edo titularra kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arazoiren bat gertatzen bada, Saileko Aholkularitza Juridikoaren arduradunak ordezkatu duela, kontratazio-mahaiaren osaera errazte aldera.

Mahaiko kideei dagokienez, 2. apartatuko b) letrako lehen puntuan, kontratazioa sustatzen duen saileko zuzendaritzaren ordezkari bat aipatzen da, kontratazio-organoari aholkularitza teknikoa emateko eginkizuna beteko duena. Era berean, aipatutako letraren bigarren puntuan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da.

Era berean, agindu-proiektuaren 2. apartatuaren b) letraren hirugarren puntuan, kide bat ezartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloko zuzendaritza eskudunaren ordezkari gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

1. artikuluko c) letran, idazkari/bokal aholkulari juridikoaren figura jasotzen da: Zuzenbideko gradu- edo lizentziatu-titulua duen teknikari bat. Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuari atxikita egongo da, eta kontratazio-organoak izendatuko du. Kontratazio-organoak aholkularitza juridikoa emango dio kontratazio-organoari, eta idazkariak, berriz, hitza eta botoa izango ditu.

Era berean, ezartzen da ezen, aukeran eta kontratazio-organoak eskatuta, organo horretako kide izan ahalko dela Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari bat, titularrak proposatuta eta kontratazio-organoak izendatuta.

Agindu-proiektuaren artikulua 5. apartatuan, honako idazketa hau proposatzen da indarrean dagoen araudira egokitzeko: «Nolanahi ere, osaera eta kideen identifikazioa



kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian jasoko dira, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaillearen profilean argitaratuko da, kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatzeko eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko egin behar duen bilera baino hamar egun lehenago gutxienez».

Proiektu horren 6. artikuluan ezartzen denez, kontratazio-mahaiko kideak izendatzerakoan, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan behar besteko hizkuntza-gaitasuna izatea, eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da. Era berean, beren eginkizunak betetzean hizkuntza ofizialetako edozeinetan hitz egin ahal izango dutela adierazten da.

Azaldutako guztiagatik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzen duen Aginduaren proiektuaren ALDEKO TXOSTENA ematen da, haren edukia txosten honetan azaldutakoari egokitu ondoren.